

“Aurtengo sagardoa usaingarria, arina eta edan erraza izango da”

Sagardoetxeak horrela deskribatu du 2015ean edango den sagardoa. Irekiera ekitaldia asteazkenean egin zuten.

Astigarragan egoitza duen Sagardoetxeak urtero sagardoaren, sagarraren eta bilketa kopuruen txostena argitara ematen du. Aurtengoari dagokionez, hamar milioi litro ekoiztu dituzte eta oro har sagardoa “arina eta freskagarria” omen da. Uzta gorabeheratsua izan da, baina azken urteetan egindako lanari esker, geroz eta sagarrondoren gehiago lantzen ari dira.



Sagardoetxearen arabera, “Uda fresko eta hezeak sagarraren azukreen kontzentrazio egokia ahalbidetu du, zuku arinak lortuz”.

AURTENGO SAGARDOA

Sagardoetxeak dioenez, “uda fresko eta hezeak sagarraren azukreen kontzentrazio egokia ahalbidetu du, zuku arinak eta freskagarriak lortuz”. 2014ko uztak Euskal Herrian hamar milioi litro sagardo inguru ekoiztea ahalbidetu du, iazkoaren antzeko kopurua.

Sagardoa dastatu dutenek horrela deskribatzen dute: “Aurtengo sagardoa oso usaingarria da, hori-berdexka kolo-

rekoa. Txinparta bikainekoa. Sagardo orekatua, edan erraza eta arina”.

SAGASTIEN KOPURUA GORUNTZ

Sektoreak sagardotarako sagarraren landaketaren aldeko apustua eginez jarraitzen dutela nabarmendu dute, “2014an 20.150 sagarrondo landatu dituzte. Dagoeneko 80.000 dira azken bost urteotan landatu diren sagarrondoak, eta aurreko urtearekin alderatuta, %25eko

gehikuntza eman da”. Txertatutako sagardotarako sagar barietateak Txalaka, Goikoetxea, Moko, Gezamina, Urtebi haundi, Urtebi txiki, Gaziloka, Mozolo, Verde agria, Patzulo, Gazi-gorri, Manttoni, Merabi, Gaziloka eta Errezila izan dira.

UZTA IRREGULARRA

Eskualdeen artean ekoizpena oso desberdina izan da. Egoera hori Gipuzkoa osoan eman da antzeko moduan.

“Aurtengo sagardoa oso usaingarria da, hori-berdexka kolorekoa. Txinparta bikainekoa. Sagardo orekatua, edan erraza eta arina”

TXOTX GARAICO LIBURUXKA

Aiurrik datozen egunetan *Kantu Liburuxka* argitaratuko du, kantuak eta sagardotegietako informazioa uztartzen dituen.

Egaperen ikuskizuna asteburu honetan



“Zuria, gure erara” dantza, antzerki eta musika ikuskizuna Saroben asteburu osoan zehar.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Espainian laugarren



Olatz Odriozola ziklo krosetan dominetik gertu ibili zen. Asier Arregi hamargarren.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Euskal Herriko txapelketa jokatu da aurtengo Urnietako Mendi Lasterketan



Martxoaren 29an, igandearekin, ospatuko da **Urnietako mendi lasterketa**ren IV. edizioa. Aurten, gainera, lasterketa Euskal Mendizaleen Federazioak antolatzen duen **Euskal Herriko Txapelketa**n bilakatuko da. Proba euskaldun batekin irabaziz gero, garaipen batekin bi txapel lortuko lituzke.

Ostiral honetan irekiko dute izena emateko aukera, eta gehieneko partaidetza 400 lasterkarikoa izango da.

Ohiko bilakatu denez, mendi lasterketa Xoxoka auzoan hasi eta bukatuko da. Eguraldi ona eginez gero, azken metroak ikusteko toki ederra da.

Iaz antolatzaileek estrainekoz ibilbide luzea eta motza antolatu zituzten, eta aurten ere gauza bera egingo dute: “Bi ibilbide ezberdin prestatu ditugu, bata aurreko urteetakoaren berdina 21,6 kilometrokoa eta bestea mendi lasterketan hasi nahi duenarentzat

aproposagoa, 11,5 kilometrokoa”. Aurkari gogorrak izan baditu ere, probaren errege gaur gaurkoz bakarra da: **Jokin Lizeaga** urnietarra. Urtez urte probako marka onena jartzen ari da. Aurten irteerara sasoi-ko iristen bada, lasterketa beste behin ere irabazteko faborito nagusi izango da. Eta, noski, garaipenarekin, etxean bertan Euskal Herriko txapeldun bilakatuko litzateke.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Igeriketa lehia Andoainen



Aspaldiko partez Allurralden igeriketa lehia Buruntzaldea IKT taldearen eskutik.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Gaur ez naiz konformatzen historia, geografia, biologia ematearekin, baizik eta nire barrena nola bizi, ezagutzen jakin, sufrimenduak nola kudeatu edo gestionatu

Guraso izaten ikasten

Bost bat lagunek adierazi didate irakurri dutela nire idazkiren bat Aiurrin, lagun seinalatuak gainera, nik espero ez nituenak. Adierazita eman nizuen ikastaldi baten berri 24 ordukoa, bi asteburutan; bada egin da eta zazpi lagun bildu dira: bi Hernanitik, bi Bizkaitik, bi Arabatik eta bat Urnietatik. Ez nuen uste hain oihartzun gutxi zutenik nire aholkuek; nahiago nuke Urnietako bat horrek idatziko baligu esanez zer probetxu atera duen aita bezala bere eginkizuna burutzeko.

Ikastolak sortu zirenean nik ez nuen nahi eskola nazionalak euskeratuta edukitzea bakarrik, eduki berdinarekin euskeraz alegia, nik edukia ere berria nahi nuen eta saiatu ginen horretan. Eskola zaharrean ikasteko bultzada edo motibazioa nota zen; zer eta zergatik ikasi behar dut? Nota onak ateratzeko. Adibide bat edo beste. Zertarako ikasi irakurtzen? Maite ditudanekin komunikatzeko. Zertarako idazten? Marrazkien bidez motza delako, gauza gehiago esateko ditudalako, erosoago komunikatzeko. Motibo horiek su eta garra sortzen dizkidate, ikasteko akuilu artifizialik gabe. Diktado baten ordeztu librearen eginkizuna sortzen da. Norbaitek idatzitako idazki baten ordeztu bere kabuz bere barruan sortu zaion idazki berria egin: gaur Adarra zurituta agertu da, horrekin egin litezkeen jolasak, base-ritarrentzat datozen neke lanak...

Zertarako erakutsi biologia edo giza-egitura? Era funtzionalean eta ez bestela, zertan diren baliagarri, mesedegarri aztertuaz. Historia ere ikasi genuen gaurkoa hobe aztertze baina gaurkoa ez genuen ikasi, azkeneko lezioa zelako-edo. Eta hogeigarren gizaldiko bi gerra mundialak aztertu gabe gelditu ginen. Literatura: iraga-

nean zein idazle ospetsu izan ditugun badakigu: Lope de Vega, Góngora eta abar, baina gaurkoen berri zipitzik ere ez; Hego-Amerikako idazleen berri ez genuen ikasi. Artearekin ere beste horrenbeste, griegoak eta badakizkigu baina gaurkoan analabetoak gara.

Adibide batzuk jarri dizkizut ulertzeko, ez euskara hizkuntzan bakarrik, baita ere edukia eta motibazioa eta emateko era aldatu behar ditugula. Gaur oraindik gehiago aldatuko nuke. Gaur ez naiz konformatzen historia, geografia, biologia ematearekin, baizik eta nire barrena nola bizi, ezagutzen jakin, sufrimenduak nola kudeatu edo gestionatu. Zauriak, burla egin nahiak, elkarrekin konparatzek, inbidia..., ezkutatzeko ez dira konpontzen, aurrez aurre begiratzeak eta sentitzeak baizik. Ez eta ere “kasorik etzaion/-k egin” ateratzea baizik eta esatea “gaizki pasako zenuen orduan”.

Eskola izan dadila bere dohain edo kualidadeak ezagutzeko eta onartzeko, bere emozioak eta sentsazioak ezagutzeko, bere barrenko korapiloak askatzeko, mundua eta bere ingurua ezagutzeko, bere ilunpeak, zailtasun pertsonalak argitzeko.

Hau dena egin litekeena da, eta nik bultzatzen egin nahi zaituztet horretara, errelebo-karreretan makila eskuz esku ematen den bezala nik ere ematen dizut jarrai dezazun, guraso ezin hobea izan zaitezten zure seme edo alabentzat. Xalbadorren idazki bat edo beste kenduz gero beste denek helburu bat dute: zuri bultzatzen gure eta zure haurrak benetan ondo heziak izan daitezten. Horretarako lehenbiziko pausoa jartzen dizut bi asteburuko ikasketa bat egiteko, eta gero geroak jarraipenik baldin badu; ondo lotuta dago, nahi duenarentzat; ez zaituztegu bakarrik utziko, burua berotu eta hanka hotzekin utziko...

Ostegun honetan Lekaion, arratsaldeko 19:00etan hasita

URzabal Urnietarron Plataformaren asanblada

Datorren maiatzaren 24an egingo diren Udal hauteskundeak direla eta, Udal gestio parte hartzaileagoa eta herritarrengandik gertuagokoa izango den baten alde dauden herritarrek sortu berri duten URzabal Urnietarron Plataformak asanblada ireki baterako deia egin du. Hitzordua, urtarrilaren 15ean, osteguna, arratsaldeko 19:00etan izango da Lekaio Kultur Etxean.



Abenduaren 23an asanblada egin zuten Lekaion, plataformak oraindik izenik ez zuelan.

Zanpatuz mendi elkarteak Eguberrietan egin zuen aurkezpena

Mendi elkarteak kide izateko bazkide kanpaina



Zanpatuz mendi elkarteak, dagoeneko baditu hainbat bazkide eta federatu. Bazkide edo Federatu egiteko informazioa eskuratzeko, interesatuek zanpatuz@gmail.com helbidera mezu bat bidali ahal izango dute, eta beharrezko informazio guztiarekin erantzungo zaie. Elkarteak kideak banan-bana erantzungo dituzte informazio eskaera guztiak, federatzeko edo bazkide izateko ze pauso eman behar diren, besteak beste. Bazkide izateko 10 euroko kuota erabaki dute mendi elkarteak kideak. Federatzeko kuota aukatzen den eremuaren arabera izango da, eta federatu guztiak, automatikoki, bazkide izatera pasatuko dira.



Zanpatuz taldearen aurkezpena egin zuten Eguberrietan.

URNIETA-LEITZA IRTEERA URTARRILAREN 25EAN

Urteko eta elkarteak antolatutako lehen ibilbidea izango da. Izena emateko zerrendak Xauxar, Kanto, Amailur eta Ikasmin ikasketa zentruan jarri dituzte, eta izen-ematearekin batera, bazkariko diru saria ordaindu beharko da, 25

euro, jatetxeko lekua gordetzeko. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 20a izango da.

Autobusean bueltatzeko aukera eskainiko da, eta bazkariko izen-ematearekin batera zehaztu behar da. 6:30ean irtengo dira, eta Adarra eta Mandoegi igo ostean, Leitzalarreatik Leitzaraino bidea egingo da.

ETENETAKO MUS TXAPELKETA

Eteneta elkarteak Eguberrietako Mus txapelketa antolatu zuen pasa den abenduaren 28an. Partaide guztien artean hauen finalistak. Irabazleak eta bigarrenak, hurrenez hurren:

1. Arkaitz Martiarena eta Eritz Gurrutxaga (argazkian).
2. Mikel Duran eta Enrike Iturriotz.



URTARRILAREN 16AN, 17AN ETA 18AN IKUSKIZUNAREN ESTRENALDIA URNIETAN

“Zuria, gure erara” ikuskizuna asteburu honetan Saroben

Asteburu osoan zehar Egape dantza taldeak Anabas musika taldearekin eta Jon Unanue aktorearekin batera ikuskizuna eskainiko dute Saroben, Luis Mari Zalduak abiatutako ideia batean oinarritu-

ta. Juan Inazio Iztueta XIX. mendeko pertsonaia historikoa ardatz hartuta, saio ikusgarria prestatzen aritu dira hilabeteotan. Emaizaz gozatzeko garaia iritsi da.

Musikari eta dantzariekin batera, Jon Unanue urnietarra Iztuetaren paperean aktore lanetan arituko da. Euskaltzalea, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakari da Unanue. Garai hura ondo ezagutzen du, beraz, harentzat paper hori antzeztea bizitzan gertatzen diren ezusteko atsegin horietakoa izan da.

Marizulo taldearen hirugarren eta azken antzezpenean parte hartu zenuen. Eta orain berriro zugana jo dute. Euskaltzale izateaz gain, aktore deitzen hasi behar al zaitugu?

Jon Unanue. Aktore ez, akaso antzezle. Txikitandik datorkit zaletasun hori, betidanik. Urteetan ez dut ezertxo ere egin, eta papera eta gidoia oso gogoko baldin baditut oso gustura egiten dudana gauza da.

Antzezle lanetan eroso sentitzen zara? Zer nolakoa izan da prestaketa lana?

J.U. Eroso sentitu naiz, bai. Nahiz eta testuak ikusi nitue-nean kezkatu, Iztueta XIX. mendeko idazlea izan zen. Garai hartako gorabeherak eta orduko gizartea gaur egun jende gutxi ezagutzen ditu, beraz, horiek obra batean islatu nahi izatea konplikatu samar izan zitekeela ikusi nuen.

Prestakuntza lanetan, ordea, ni zorionez prestaketa lanetan Mikel Agirregomezkortaren zuzendaritzapean aritu naiz. Lan bikaina egin du, eta neronek gozatu ederra hartu dut. Egia esateko, oso gustura aritu naiz.

Oinarrian antzezten dudana Iztuetak berak idatzitako lanen pasarteak dira, eta ez ditugu asko aldatu. Berak idatzitakoa bere horretan mantentzen ahalagindu gara, baina apur bat ulergarri egiteko moldaketa batzuk egin behar izan ditugu. Nik uste jendeak arazorik gabe ulertu ahal izango duela guztia.



Jon Unanue euskaltzalea asteburu honetan antzezle lanetan ikusiko dugu, Sarobe-ko taula gainean.

Ikustera joango denarentzat, ikuskizunaz zer aurreratuko zenuke?

J.U. Oro har dantza eta musika ikuskizun zirrargarria da, non dantzari gazte talde batek egindako lan bikaina ikusi ahal izango den. Ez da egun batetik bestera sortutako taldea, dantza taldeak urteetako lana metatu eta ondu du.

Funtsean lan horrek azaltzen duena Iztuetaren ikuspegia da, koreografiara eramana. Nik uste emaitza oso ona dela, eta ikusgarria, Edu Muruamendi-razengandik itxaron genezake-ena.

Manuel Larramendi, Juan Inazio Iztueta, ... garai hartako gizonen paperean jartzea bizitzak ema-

“Oro har dantza ikuski-zun zirrargarria da, non neska gazte talde batek egindako lan bikaina ikusi ahal izango den”

Jon Unanue

ten dituen ezusteko atsegin horietakoa al da?

J.U. Bai, atsegina izan da alde horretatik. Jakin bezain pronto erronkatzat hartu nuen proposamena. Iztueta idatziz ezagutu aurretik, nik neronek Joxe Garmendia Arruabarrena Iztuetaren biografo eta aztertzaile handiena ezagutu nuen. Berarekin Iztuetari buruz behin baino gehiagotan hitz egiteko aukera izan nuen. Iztueta, gainera, Manuel Larramendi idazlearen jarraitzailea zen. Euskal kulturean Iztueta XIX. mendeko pertsona adierazgarrienetakoa izan da. Beraz, bai, niretzat ezusteko atsegin horietakoa izan da.

Juan Inazio Iztuetaren paperean arituko zara, XIX. mendean euskaraz idazten zuen idazle eta kulture bakanetakoa. Iztueta “Larramendiren belaunaldi”ko kideztat hartu dute historialariek. Zuk zeuk, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakari zarenetik, ondo ezagutzen

dituzu garaia eta testuingurua. Egungo begietatik zein irakaspen har genezake belaunaldi hartatik?

J.U. Irakaspen nagusia mende hura eta garai hartako gertakariak ezagutzea da. Gaur egun jendeak gauza haiei arreta gutxi eskaintzen die. Mende guztiak, Historia oro har, interesgarri dira. XIX. mendea, ordea, aldaketa ikaragarrien garaia izan zen. Antzinako erregimenarekin, absolutismoarekin hausteko ahalegina egin zen penintsulan. Kontraste nabarmenak sortu ziren eta horiek ez ezagutzeagatik oraindik ere euskal gizartea bere buruarekin apur bat galduta dabilela esango nuke. On handia egingo liguke XIX. mendea, oro har, ongi ezagutzeak. Iztueta, hainbat gauzatan, Larramendiren jarraitzaile izan zen, eta Larramendik hitzez zein idatziz utzi zuen oihartzunak urte askotan iraun zuen.

Gizon bitxiak izan ziren biak, lirudikeenaren kontra nor bere garaian ikuspegi zabal eta aurrerakoiekoak eta ugari dira bien arteko antzekotasunak. Iztuetari dagokionez, dantzaren tradizioa berreskuratu nahi izan zuen eta Gipuzkoako dantzei buruzko liburua idatzi zuen; geroztik maiz dogmatzat hartu izan dena, berak dogmatikotik askorik ez zuen arren. Ez zuen, beraz, zalantza eta eztabaida ukatuko. Bestetik, oso bizitza gorabeheratsua izan zuen, Inkisizioarekin arazoak... Larramendirekin hainbat ezauzgarritan badu parekotasunik. Larramendi garbizalea zela, bai, egia da, eta bere sinismenak dogmaz bizi zituen, baina Euskal Herria guztiz blaitzen zuten sinismen horien barruan gizon aurrerazalea izan zen oso. Biek ere utzi duten mezua hona laburbil daiteke: gizartean eta ideologian aurrera egin litekeela baina tradizioa baztertu eta galtzen utzi gabe.

Urtarrilak 17 eta 18.
19:00. Sarobe. 4 euro.



Jon Unanue eserita, entsegu batean. Alboetara, dantzariak eta musikariak.

Ehiza xehea txakurrarekin



Argazkian Garikoitz txapelduna, Xabier txapeldun-ordea, Ibai laugarren sailkatua eta Juan beterano mailako txapelduna.

Aurreko larunbatean Adarra-Aballarri inguruan **Santa Kruz elkarteak** ehiza xehea txakurrarekin lehiaketa antolatu zuen. Hamabi partaide izan ziren denera. Elkar-teak eskertza adierazi nahi die laguntzaile izan zituzten herrikideei.

SAILKAPENAK:

- Txapelduna **Garikoitz Arteaga** izan zen 5 pieza eta 510 punturekin.

- Bigarrena **Xabier Amantegi** Gomez 4 pieza eta 415 punturekin.
- Hirugarrena **Borja Granado** 4 pieza eta 410 punturekin.
- Laugarrena **Ibai Gorostidi** 4 pieza eta 410 punturekin.

Beteranoetan irabazlea **Juan Arteaga** izan zen, 2 pieza eta 210 punturekin.

Txapelketa "Zona 2" delakoan parte hartzeko baliagarria da.



Txapelketaren hasieran ateratako argazkia.

Izena emateko aukera urtarrilaren 23ra bitarte, Bertan bulegoan

Seme alaben garapena eta heziketa hizpide

Haur eta Gazteria Sailak, Ongizate sailarekin elkarlanean, formazio tailerrak antolatu ditu haur txikien gurasoei bereziki zuzenduta daudenak. Helburu nagusia jokabide pertsonal, emozional eta hezigarriak eskaintzea da, "familiako bizikidetzaren dinamika positiboa eraikitzeko". Topaketak otsailan hasiko dira.

HAUR HEZKUNTZA

Otsailak 16, martxoak 16, apirilak 13, maiatzak 6 eta 11.

14:30-16:00.

Amaia Vazquez psikoterapeuta, sexologoa eta haur prebentzioan adituaren eskutik. Haurtzaroko afektibitate-loturak eta haur sexualitatea izango ditu hizpide ordu eta erdiko bost saiotan.

LEHEN HEZKUNTZA

Apirilak 16, 23 eta 30.

Maiatzak 7 eta 14.

18:00-20:00.

BIGARREN HEZKUNTZA

Otsailak 2, 9 eta 23.

Martxoak 2 eta 9.

18:00-20:00.

Agipad drogen abusuaren prebentzioarako Gipuzkoako erakundearen eskutik.

2014-2015 ikasturterako matrikula epea ireki zuten astelehenean

EPA helduen eskolan izena ematea zabalik

EPAkoa ikastetxe ofiziala da, 18 urtetik gorakoentzat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku dagoena. Doako matrikularekin titulazio ofiziala eta trebaketa lor daitezke, alor ezberdinetan. Ikastaroak goizez, arratsaldean eta gauean aukeratu daitezke.

Urnietarrek Andoainen eta Hernanin izena emateko informazio osoa jasoko dute.

Astelehenetik zabalik dago izena emateko epea. Horra, eskaintza:

HEZKUNTZA ARAUTUA HERNANIN-ANDOAINEN

- Idazten edo irakurtzen ikasi.
- Komunikazio trebetasunak hobetu.
- Zure ezagupenak gaurkotu.
- Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortu.

HEZKUNTZA EZ ARAUTUA HERNANIN, OINARRIZKO MAILA

- Euskara: astean 2 egun.
- Ingelesa: astean 2 egun.
- Informatika: astean 2 egun.
- Atzeritarrentzat gaztelania.

HEZKUNTZA EZ ARAUTUA ANDOAINEN

- Euskara: astean 2 egun.
- Ingelesa: astean 2 egun.
- Informatika: astean 2 egun.
- Atzeritarrentzat gaztelania.

MATRIKULA EPEA IREKITA

Astelehenetik ostegunera: 10:00-12:00 eta 15:00-17:00.

Ostiraletan: 10:00-12:00

- Hernani: Antziola 62. 943 33 53 18.

- Andoain: Kale Nagusia, 4 B. 943 30 40 21.

Urnietako bideo sorta zabala internet sarean



IÑAKI URIBESALGO

Eskuz egindako egurrezko betaurrekoak

Iñaki Uribesalgo arotza da eta duela bost urtez geroztik, betaurrekoak eta egurra eskuartearen izanda ari da lanean. Elena Ibañez emaztearen laguntzarekin ezinezko zirudiena egi bihurtu du.

Esfortzu askoren ondoren, gaur egun, betaurrekoentzako egurrezko egitura edo armazoiak egiten ditu, etxean bertan eskuz eginak. Teknika hori lantzen, gainera, bakarrenetakoa da.

Nolatan hasi zinen proiektu honekin?

Iñaki Uribesalgo. Orain dela bost urteko neguan hasi zen. Emaztea eta biok Errioxako etxe bat zaharberritzen ari ginen. Neguan etxea berotu beharra zegoen eta basotik egurra biltzen genuen; basoko langileek alde batera uzten zuten egurra biltzen genuen. Garai hartan, ardientzako bideak garbitu zituzten eta kalitate oneko zuhaitz asko bota zituzten. Arotza izanik, izugarritzko pena sentitu nuen. Kalitate handiko eta mota askoko zuhaitzak ziren, gainera: ipuruak, gorostiak, gereziandoak, haritzak...

Nolatan bururatu zitzaizun betaurrekoak egitea?

I.U. Hamalau urterekin arotz lanetan hasi nintzen. Lehenengo lau urteetan izan nuen irakasleak egurra tolestatzeko teknikak erakutsi zizkidan. Honela, egurra doblatzen hasi nintzen etxean, buruan ideia finkorik eduki gabe. Ustekabean eta konturatu gabe, betaurrekoak egin nitzakeela konturatu nintzen.

Zulo bat egin eta hagatxo bi jarrita, betaurreko batzuk nituen eskuartearen! Izugarritzko sorpresa izan zen. Jendea irakutsi eta izugarritzko harri-dura aurpegiak jartzen zizkidan ten.

Jendearen erreakzioak aurrera jarraitzera bultzatu zintuen, ezta?

I.U. Bai. Ikusi nuen hori izugarria zela. Hala ere, oso zaila zen, izan ere, bandak jarri behar zitzaizkien makilei, itxura ona eman behar zitzaien... Ikusi nuen alemaniar batek eta italiar batek soilik egiten zituztela horrelako gauzak. Zailtasun horiek ikusita, alde batera uztea erabaki nuen.

Etxearen erreformarekin jarraitu nuen. Urtebete geroago, ordea, berriro ekin nion lanari, eta azkenean, lortu egin nuen.



Iñaki Uribesalgo bere egurrezko betaurrekoekin, San Juan plazan.

Nola egiten dituzu?

I.U. Egurra tolestuz, lixatuz eta kola erabiliz egiten ditut, etxe-ko garajearen. Burdinezko bisagrekin egitea nahiko erraza da, baina berritzaileago izan eta besteengandik bereizteko, egurrezkoak egin nituen. Izugarri kosta zitzaion. Pentsa, egurra biltzen hasi nintzenetik gaur arte bost urte igaro dira. Hau orain dela bost urte egin izan banu, lehenengoa izango nintzen estatuan eta bigarrena European. Ezinezkoa izan da, lan asko eskatu baitit.

Teknikaren xehetasun guztiek esperientzia ordu asko eta saiakera asko egitea suposatu didate.

Dena den, zure teknika erabiltzen duenik ba al dago?

I.U. Estatuan ez. Europa mailan badago nire teknika bera erabiltzen duen beste bat, baina gainontzeko guztiek zenbakizko kontrolaren bidez eta makinak erabilia egiten dituzte. Horiek, noski, gu baino azkarrago egiten dituzte, izugarritzko produkzioa dute. Egun batean egiten dutena, nik bi hilabetetan egingo nuke, gutxi gora-behera.

Zer izan da gehien kostatu zai-zuna?

I.U. Zailena, ohera sartzea eskuartearen izan da, horrelako ideia potoloa izanda. Zaila da



Lau modelo ezberdin garatu ditu Uribesalgok.

“Bizitza osorako betaurrekoak izan daitezke, erabileraregokia ematen bazaie”
Iñaki Uribesalgo

aurrera egitea irteerarik ikusten ez denean. Zaila izan da dena. Izan ere, betaurreko bat egitea ez da dirudien bezain erraza. Angelu asko daude eta ondo geratu arte esperimentu asko egin behar izan ditut. Betaurrekoak irekita eta itxita zuzen geratzea, estetika ona ematea, ondo lixatuta egotea... Xehetasun asko hartu behar dira kontuan.

Zenbat modelo egitea lortu duzu?

I.U. Lau modelo ditut. Hiru eginda eta laugarrena amaitzen ari naiz. Modelo bakoitzean, eguzkiko lenteak eta lente graduatuak jartzen ditut. Torlojutxo batzuen bidez, lente horiek jarri eta kendu egin daitezke; optikan graduatzeko, lenteak kendu ditzaten. Modelo bakoitzean, lентeez gain, lau egur mota erabiltzen ditut.

Norbaitek zure egurrezko betaurrekoak nahi baditu nola esku- ra ditzake?

I.U. Oraingoz, betaurrekoa niri erosi behar dit eta, ondoren, optikara joan behar du gradua-

tzera. Dena den, komertzial batzuekin hitz egiten ari naiz orain, produktuak erosteko eta optiketan banatzeko. Esate baterako, Donostiko optika bate-tik interesa agertu dute. Beraz, orain alor komertzialean ari gara lanean. Hilabete batzuk barru, merkatuan tokia izatea nahiko genuke.

Kalitatea ez dago zalantzan...

I.U. Materiala naturala da. Bizitza osorako betaurrekoak izan daitezke, erabileraregokia ematen bazaie. Garai bateko egurrezko armairu zaharrak oraindik bizirik jarraitzen dute eta betaurrekoen kasuan, gauza bera gertatuko litzateke.

Zenbat balio dute?

I.U. Oraindik ez dakit ziur, baina ez dut uste 500 euro baina gutxiago balioko dutenik. Atzean lan asko dago; egurra basotik bildu behar da, lehortu egin behar da hilabete askotan zehar... Gainera, betaurreko bakoitza bakarra eta eskuliboa da.

Zein amets betetzea gustatuko litzazuke etorkizunean?

I.U. Ahal bada, etorkizunean honetaz bizi nahiko genuke. Merkatuan txoko bat izanda, betaurrekoak saltzea da gure asmoa.

BURDINA TALDEAREN BERRESKURAPEN LANAK

Atxularko gotorleku karlista

Karlisten garaian ez ezik 1936ko Gerran ere gotorleku gisa erabili zen Atxularko mendi muinoan aritu dira lanean Burdina taldeko boluntarioak azken aldian. Garai historiko ezberdinetan erabilita-

ko munizioa eta beste zenbait elementu aurkitu dituzte bertan. Andoingo historiari buruz gehiago jakiteko leku aproposa izan daitekeela uste dute Burdinako kideek.

Atxular 370 metroko mendixka da eta Leizotz auzotik Marizulo aldera (Urnieta) doan bidean kokatzen da. Leku estrategikoa da, inguru guztia ikusteko aukera ematen baitu bere kaskotik, Urnieta Goiburuko bailara eta Leizaran aldeak batik bat. Halaxe ulertu zuten Lehen Gerra Karlistan (1833-1839), Donostialdetik zetozen tropa liberrak aurre egiteko karlistek ezarri zuten lerro defentsiboaren zati bat izan baitzen. Are gehiago, lekuri garrantzitsuenatzat jo zuten bere egileek. Besabi gainean kokatzen den beste gotorlekua, Atxetilun izenekoa eta 2010ean deskubritu dena, haren osagarri gisa eratu zuten.

Fuente de los Dolores bezala azaltzen da Atxularko gotorlekua, karlistek garai haietan egin zituzten plano eta idatzietan.

Hirugarren Gerra Karlistan (1872-1876) berriro erabili zen, funtzio berbera betetzeko. Azkenik, 36ko Gerran errepublikanoek ere leku estrategikotzat hartu zuten, Tolosa eta Leizarandik zetozen kolpisten aurka egiteko. Hain zuzen ere, Burdina taldekoek gerrako zenbait elementu topatu dituzte; eskopeta eta kanoi txikietan



Burdina taldeko kideak Atxularko parajeetan, geldiune batean.

erabiltzeko balak, eta bala zorro eta kaskiloak batik bat. Azken Gerra Karlistakoak eta 1936ko Gerrakoak dira horiek. Karlisten garaiko txanponak ere azaldu dira.

Garbiketa lanak zuzendu dituen **Alfredo Moraza** arkeologoak adierazi duenez, "balio historiko handiko eraikuntza da, Andoingo bazterretan ondoren kontserbatzen dena. Balia-garria gerta daiteke Andoingo eta eskualdeko historia berreskuratzeko".

Joxe Ramon Berrondo Burdinako kideak etorkizuneko asmoak adierazi ditu: "batetik mantentze lanak egitea izango

da taldearen ardura aurrerantzean. Bestetik, iruditzen zaigu leku egokia izan litekeela Gerra Karlistei buruzko pedagogia egiteko. Andoingo ikastetxeekin harremanetan jarri gara, oinez hona etorri eta bertan Gerra Karlistaren inguruko irakaspenak eman daitezkeela".

INGURUAREN GARBIKETA

Atxularko kaskoa landareriak beteta dago, eta hura garbitzea izan da batez ere Burdinako bolondresen zeregina. Asteburu batzuk egin dituzte bertan. Hasiera uste baino katramilatsuagoa gertatu zitzairen. Izan

ere, argitu nahi izan dutenez, Andoingo Udaleko ingurumeneko sailetik ziurtatu zieten herri lurretan kokatzen zela Atxular. Lehenbiziko lan egunean, ordea, Muñagorriko baserriko familiaren kexua jaso zuten, lur sail hori bertako jabetzakoa delako berez. Azkenean, dena konpondu ahal izan zen, eta garbiketa lanetan jarraitu ahal izan zuten Burdina taldeko kideek. Alde horretatik, baserriko familiari eskerak eman nahi dizkiote erakutsi duen prestutasunagatik.

Ondarea berreskuratzearen aldeko ekimen horren ondorioz, bi eremu bereizi ahal izan

dira, hiru metroko zabalera duen zulo sakon batek banatuta daudenak. Oinarri anguluzuzena dute biek ere; 90x25 metrokoa da lehena, 25x12 metrokoa bestea. Nagusiena, zortzi-bederatzi metroko horma batek itxiko luke bere garaian; bere baitan hiru eraikuntzen zimentuak nabari daitezkeelako. Beharbada soldaduen kuartela izan zitekeen. Kanpoaldean, berriz, lau artilleria pieza kokatuko ziratekeen eremua igar liteke.

Morazak gotorlekuei buruz mito bat hautsi nahi izan du, film beliko eta historikoen bidez herritarrei irudimenean daukaten ustea hain zuzen: "gotorlekua aipatu eta jendea-ri harrizko eraikuntza handi bat datorkio burura. Baina esan behar da Gerra Karlistetan zutitzen ziren eraikuntzak hilabete gutxi batzuetan erabiltzeko izaten zirela; ahal zuten materialarekin eraikitzen zituzten, azpian harrizko egiturak eta gainean egurrezko etxolak".

INFORMAZIO OSAGARRIA

Atxularri buruzko informazio gehiago *Leyçaur 12* lan historikoen aldizkarian aurki daiteke (Moraza, Alfredo: Andoingo karlista garaiko gotorlekuak).

Axindegiko garbitokia berreskuratu dute

Garai batean Axindegiko iturriko uraz baliatzen zen garbitokia txukundu eta bistara jarri dute Burdina taldeko kideek.

Axindegi baserriko bizilaguna den **Pilar Mendiola**k emandako informazioa jakingarri izan zaie taldekoei, lantegi horri ekiteko.

Pilar Mendiola garbitoki hori erabilgarri zeneko garaia ezagututakoa da. "Labaderoaren harria (losa) oraingo errepidera ateratzen zen metro erdi bat. Orduan ez zegoen errepidetik, gurdibide bat besterik ez".

XX. mendeko lehen laurdenean, Karrika auzoa laupabost baserrik osatzen zuten: Kon-

traregistro, Axindegi, Axindegi Ondo, Istuitza Torre eta Iturriotz.

Hiru eginkizun, behintzat, betetzen zituen garbitokiak: "Iturria eta garbitegia zen, eta horiez gain, egunez larrera eramaten zen ganadua ezat edateko arraska ere bazen".

Pilarrek, umetan, ikusi izan zuen bere ama (**Isabel Lasa**) arropa garbitzen. "Arropa bereziren bat zenean eta etortzen zen. Ondoko baserrietako etxeoandreak ere hona etortzen ziren. Hori bai, gero eta gutxiago. Azkenean labadero bezala baztertu egin zen. Metro erdiko sakonera edukiko zuen putzua geratu zen hala

ere, eta harrezkero, euriarekin eta bete ohi den bakoitzean garbitzea tokatzen zaigu, gainontzean gainezka egiten baitu eta ur errekek sortzen baitira trenbideko tunelean barrena".

ASINDEGIKO ITURRIA

Burdina taldeak txukundu berri duen garbitokiak ehun bat metro gorago dagoen ur jaiotzatik datorren ura jasotzen du. Inguruko baserritarrek erabili izan zuten ur hori, harik eta 1930ean Etxeberrietatik Karrikaraino hoditeria eraiki zen arte, herriko urak ekartzeko asmoz. Mendiola adierazi duenez, "Algodonerako lantokia ere iturri horretatik hornitzen



Burdina taldeko kideak, Pilar Mendiolarekin (ezkerretik hirugarrena), Axindegiko garbitokian.

zen; pizina bat zeukan lantokian barruan, eta hura pixkana-pixkana betetzen zuten, ondoren tinte lanetan erabiltzeko".

Iturri horrek ur garbia, edateko modukoa dakar oraindik, baina egun, apenas inork hartzen duen bertatik.

ZUMBA, STREET ART, POSTRE ETA TALO TAILERRA JARDUERA BERRIEN ARTEAN

Kirol eta aisialdi jarduerak berriak Gazte Astean

Eguberrietan Gazte Astea izan da Andoainen; Gizarte Zerbitzuen saileko kale hezitzaileek Gazteria saileko Gazte Lokaleko lantaldearekin elkarlanean antolatuta.

Antolatzaileak pozarren daude lortu duten emaitzarekin. Aurten goa ere ondo joan dela eta egindakoarekin gustura geratu direla adierazi dute.

Aurten aurreko urteetan baino parte hartze handiagoa izan dugu”, nabarmendu du Asier Gutierrez. Betiko ohiturei jarraituz, ohiko ekintza batzuk mantendu dituzte, baina berrikuntzen aldeko apustua ere egin dute. Horregatik, basketa, futbola, eskupilota, xake eta ping-pong txapelketaz gain, zumba, antzerki eta talo tailerra ere izan dituzte, besteak beste.

“Futbolak beti izaten du arrakasta, baina aurten, adibidez, zumbako bi saio egin ditugu saio bakarrean lokala txiki geratu zelako. Parte hartzea gehitu egin da, baina batez ere, ez ohiko jarduerak horietan”, azaldu du. Gazteek normalean egiten ez dutena egiteko aprobetxatu dute aste hori eta, ondorioz, berrikuntza horiek erakarrita, arrakasta handia izan dute bereziki zumba, Street Art, postre eta talo tailerrekin. “Taloa urtean behin jaten dute Santomas egunean, baina masarekin aritzea eta beraiek sortutakoa jatea asko gustatzen zaie”, gehitu du Asierrek.

PARTE HARTZEA SARI BIHURTUA

Gazte Astearen bitartez, haurrei oporretan eskaintza bat emateaz gain, kaleari astindu bat ematen saiatzen dira: “Hasiera batean, gazteek ez zuten eskaintzarik oporraldietan eta horri buelta eman nahian hasi ginen antolatzen. Horrez gain, ordea, komunitateari begira beraiekin zer bait egitea nahi izaten dugu”, adierazi du Iker Alustizak.

Bestalde, azken urteetan, lehiakortasuna eta sarien premia areagotzen ari zela antzean zuten antolatzaileek: “Gazteek garrantzia handia ematen zieten parte hartzeari, baina gero eta gehiago sari-banaketa festari. Lehiaketa kutsua hartu zuen eta ez zitzaizgun batere gustatzen”. Sarien truke parte hartzeko fenomeno hori alde batera uzteko, ekintza partehartzailegoak eta el-



Street Art jarduerak Nafarroa plazan.



Azken jaira herritar ugari hurbildu zen.



Taloa egiten ikasi, egin eta jateko aukera izan zuten Gazte Astean.

“Zumbako bi saio egin ditugu saio bakarrean lokala txiki geratu zelako. Parte hartzea gehitu egin da, baina batez ere, ez ohiko jarduerak horietan”
Asier Gutierrez

“Gazteak ohartzen ari dira saria parte hartzea bera dela. Beraientzat da Gazte Astea eta beraientzat egiten dugu. Hori da hain justu oparia”
Iker Alustiza

karteekin harremana ahalbidetzen zutenak antolatzeari ekin zioten duela pare bat urte: Karamila taldearekin antzerki tailerra, talogileekin talo tailerra, kiroldegoekin zumba...

Gainera, orain, parte hartzaile bakoitzari Gazte Asteko kamiseta ematen diete: “Nortasuna ematen die eta ohartzen ari dira saria parte hartzea bera dela. Beraientzat da Gazte Astea eta beraientzat egiten dugu. Hori da hain justu oparia”. Honela, Andoaingo gazteak direla sentitzen dutela eta beraien ar-

teko nortasun eta harreman hori sendotu egiten dela diote; tailerretan elkarrekin ibiltzen direlako ikastola ezberdinetako gazteak, elkar ezagutuz eta harremanak estutuz.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Gaizki ulertu baten ondorioz, futbol txapelketa abenduaren 22 eta 23an izango zela zehaztu eta gero, Leizaran institutukoak eskolara joan behar zutela ohartu ziren: “Pena izan da, deskoordinazio horren ondorioz, jendea gogoz geratu delako”.



Zumba saioek parte hartze handia izan dute.



Xake saioa Gazte Lokalean.

Gozogintza tailerra



Ongi Etorri elkarteak gaitzak egin zituzten, Gurasolaguna ekimenaren eskutik.

Aurreko astean Ongi Etorri elkarteak gaitzak egin eta horiek apaintzen ibili zen guraso eta haur taldea. Tula

Parrak gidatu zuen tailerra, Udalaren euskara lansailak sustatuta. Arratsalde ederra pasa zuten.

Martxoak 8 emakume



Udalak urtarrilaren 31ra bitarte herritarren esku utzi nahi du zortzi emakume aipatzeko aukera, zeinak egindako lana azpimarratzea me-rezi duten. Proposamenak Basteron, Atarian, Allurralden edota anbulatorioan utz daitezke.

Bestalde, martxoaren 8ko egitaraua osatzeko kartel lehiaketa ere martxan jarri dute. 300 euroko sariarekin, lana otsailaren 6a baino lehen aurkeztu behar da.

Axeri dantza, puska biltzea



Urtarrilaren 31n Axeri dantzarien puska biltzea ospatuko dute Buruntza auzoan. Hori

prestatzeko bilera urtarrilaren 22an deitu dute, 19:00etan Santa Krutz elkarteak.

“Hariak lotuz” parte hartze prozesua aste honetan abiatu da

Udalgintzan egindako lana herritarren aurrean



Aste honetan hasi dira bilerak, eta datorren astean jarraipena izango dute.

Udalak aurten ere herritarrengana joko du, agintaldi honetan egindako eta egitear dagoena azaltzeko. Asteazken honetan abiatu zen prozesu berria, zeinean landa guneko auzotarrak deituta zeuden. Alegia, Goiburu, Buruntza eta Leizotz auzunee-tako biztanleak.

Bazkardo – Kaletxiki – Geltoki – Alejandro Kalonge

Urtarrilak 15, osteguna.
18:30. Berrozpen.

Goiko Gunea – La Salle – Plazaola
Urtarrilak 19, astelehena.
18:30. Urigainen.

Karrika – Etxeberrieta
Urtarrilak 20, asteartea.
18:30. Karrika elkarteak.

Sorabilla – Borda Berri

Urtarrilak 21, asteazkena.
18:30. Sorabillako auzo elkar-tean.

Zumea – Erdigunea – Olagain
Urtarrilak 22, osteguna.
18:30. Basteron.

Prozesua jarraitzeko:
partehartu.wordpress.com

Andoaingo bideo sorta zabala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Santakrutzen atarian argitaratuko duten diskoan entzungai

Ereserki bana Errekaburu eta Triana elkarteei



Aurkezpenean parte hartu zuten herrikideak: Luis Gil, Jose Chinchilla eta Estela Perez Triana elkarteko kideak, Joxe Ramon Berrondo diskaren koordinatzailea, Joxe Mari OIartzabal konposatzailea, eta Joxe Forkada, Agustin Zinkunegi eta Joxe Antonio Huizi Errekaburu elkarteko kideak.

Triana eta Errekaburu elkarteek ere badute ereserkia. Andoainen dauden hamalau elkarteetatik horiek biak ziren ereserkirik ez zeukaten bakarrak eta Joxe Mari OIartzabal konposatzaileak bete du hutsune hori.

Asteartean aurkeztu zituzten bi kantak. OIartzabalek bi abesti berrien inguruko ezaugarriak azaldu zituen. Trianarena, bi zatitan banatzen da: lehenean, euskal pasakallearen erritmoa da nagusi, eta bigarrengoan, sevillanah hartzen du indarra. Pieza batean euskal kultura eta andaluziarra uztartzen saiatu dela azpimarratu zuen OIartzabalek.

Errekabururen abestia osatzeko orduan, berriz, euskal doinueta oinarritu da; elkar-tea osatzen duen giza taldearen kultur ezaugarriak hartu ditu kontuan.

Poza eta esker ona agertu

zuten aurkezpenean parte hartu zuten bi elkarteetako kideek. Abestia oso polita dela eta eurentzat opari goxoa izan dela aitortu zuten.

DISKO BERRIAN SARTUKO DITUZTE BI ERESERKIAK

Gogoratu behar da bi abesti horiek Garate estudioetan grabatzeko den diskoan sartuko dituztela. Hemezortzi piezek osatuko dute: hamalau elkarte- enak, eta beste lau gehiago (Santa Krutz Martxa, Andoaingo Ereserkia, Fernando Uri- besalgo eta Gira Kale Txiki txaranga).

Diskoa bultzatzen ari den herri ekimeneko Joxe Ramon Berrondok grabaketaren inguruko zenbait xehetasun gogorazi zituen. Otsailaren 27an grabatuko da, eta hogeita zortzi musikaririk eta elkarteetako danbor joleek hartuko dute parte. Ospe handiko musikariak dira, eta tartean Errente-

Diskoaren lema hauxe izango da: "Elkarteek herria gorpuzten dute! Eskuan daukazun diskoan andoaindar senaren taupadak entzun ditzakezu..."

ria, Hernani eta Donostiako musika bandako zuzendariak ageri dira. Doan jotzeko pres- tutasuna azaldu dute, denek ere.

Lan berria Santa Krutz jaien aurreko astean Basteron aurkezteko asmoa dute. Diskoa herriarren artean eskuz esku zabaldu nahi dute, eta hori erraztuko duen prezioan jarri- ko da. Hamar eurotan, zehazki. Diskoak berarekin eramango duen lema ere jakinarazi zuten: "Elkarteek herria gorpuzten dute! Eskuan dauka- zun diskoan andoaindar sena- ren taupadak entzun ditzake- zu..."

Pala txapelketa Andoainen

Irunberri kultur elkarteak lehen pala txapelketa mixtoa antolatuko du urtarrilean, hilaren 24an hasita. Txapelketa larunbat arratsaldetan burutuko da Aita Larramendi ikastolak Txitokiko egoitza nagusian duen pilotalekuan. Pala txapelketan izena emateko honako tokietan egin daiteke: Irunberri, Txuri Beltz, Txalaka eta Lanbroa ta-

bernetan. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. Epea urtarrilaren 19an amaituko da.

Bikote guztiek gutxienez bi partida jokatu behar dituzte txapelketan.

Txapelketa Irunberriren itxiera mehatxuari aurre egiteko antolatu dute, "palazkada palazkada Irunberri Libre" izenburupean.

Irunberri antolatu duen txapelketa mistoan parte hartzeko epea hurrengo astelehenean amaituko da, hots, urtarrilaren 19an

Bestalde, berdintasuna eta parte hartzea bezelako baloreak sustatu nahi dituzte.

Argazkialdia'15 jada martxan dago



Argazkilaritza hizpide izango da udaberri honetan ere.



Sarean

www.argazkialdia.com

Argazkialdia '15

Maiatzaren 16tik ekainaren 14ra

"2015eko edizioari begira, jaialdiaren izakerarekin jarraituko dugu: berriro ere kostu baxu eta kalitate handiko argazki jaialdia osatuko dugu"

"Argazkialdia, argazkilari hasiberrien elkargunea 2013an argazkilari ez profesional eta hasiberrien elkargune izateko jaio zen argazki jaialdiaren bigarren edizioa ospatuko dugu Andoainen 2015eko udaberrian.

Argazkialdia'13 arrakastatsua izan zen oso. Jarduera anitzeko jaialdi erraldoia osatu genuen, taberna, denda, kulturgune eta kalean erakusgai jarritako 400 argazki baino gehiago izan zituelarik.

2015eko edizioari begira, jaialdiaren izakerarekin jarraituko dugu: berriro ere kostu baxu eta kalitate handiko argazki jaialdia osatuko dugu, izan ere, Argazkialdia'13k eskaintza kultural erakargarriek ez dutela zertan garestiak izan behar frogatu baitzigun.

Argazki tailer eta solasal-

diak izango ditugu, argazki rallyaren aitzakiarekin Leitzaran bailarak eskaintzen dizkigun bazter ederretan gozatzeko abagune ezin hobea izango dugu, eta nola ez, argazki zoragarriak leku oso desberdinetan ikusteko aukera paregabea eskainiko digu Argazkialdia'15ak.

Berriro ere, argazkilari hasiberri eta ez-profesionalei beren lanak aurkezteko aukera eman nahi diegu, ez baitugu argazkigintza argazkiak ondo pasatzeko bakanrik egiten dituztenak gabe ulertzen.

Argazkiak jasotzeko epeari hasiera eman diogu jada. 2015eko Argazkialdian argazki-erakusketan parte hartu nahi duenak, argazkialdia@argazkialdia.com emailera bidali beharko ditu beren portfolioak, edonork gustukoaren duen gaiko argazkiak bidal ditzakeelarik".

Lurraldebusen erabilerak goruntz egin du 2014an

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak sailak 2014ko autobus zerbitzuen erabilera- ren datuak eskaini ditu, zeinean erabilerak %4ko igoera izan duen. Aldundiak oso positiboki baloratu ditu erabilerak datuak, "oso argi adierazten dute Aldundiak garraio publikoaren alde egin- dako apustuak eragina izan duela eta herriarrek gero eta nabarmenago egiten dutela garraio publikoaren alde".

Goruntzko joerak ez du

etenik. Datu gisa, azpimarragarria da 2014an 2010ean baino %17 bidaia gehiago egin zela.

Gaueko zerbitzuei dagokionez, igoera ere goruntzkoa da. Euren esanetan, "Lurraldebusen autobus zerbitzua egon den gau bakoitzeko 1.000 auto partikularren erabilera saihestu da".

Lurraldebus edo Mugi txartelen erabilerak nabarmen egin du gora, izan ere, bidaien %83,54 txartelarekin ordaindu dira.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Urte berri on 2015

Gaur ez naiz konformatzen historia, geografia, biologia ematearekin, bai- zik eta nire barrena nola bizi, ezagutzen jakin, sufri- menduak nola kudeatu edo gestionatu

Joan dira hainbeste senti-
mendu kontraesankor
sortarazten dizkiguten Ga-
bonak. Gertakari guztietan
bezala, jai horietan ere
kontsumoak muturra luze sartzen du.
Eskua erraz joaten zaigu, nahiz eta
gero damutu. Interesgarria litzateke
ariketa gisa egun horietan jasotzen
ditugun zorion, desio on, maitasun
eta bake hitzak... denak bildu eta Co-
llage antzeko bat egitea. Azterketa
bat egin gero, zein diren zintzoak eta
zein faltsuak. Ezen eta hipokresia eta
itxurakeria asko dago.

Bestalde, zenbait desiatzen egon-
go ziren jai hauek noiz bukatu, ba-
rruan zeramaten nahigabea areagotu
egiten baita. Dena den, joan dira eta
orain ezaguna den urtarrileko aldapa
gogor horretan gaude. Barne senti-
mendu eta arazoei ez badiegu entzu-
ten eta bide egokia ematen, gaizki
goaz. Gure barne munduarekin, esan
nahi baita gure sentimenduekin, ezin
dugu parentesirik egin. Egun batzue-
tarako baztertuz gero, indar gehiagoz
ateratzen baitira. Dena den, bakoi-
tzak jakingo du barne motxila nola
kudeatu sufrimendu iturri izan ez da-
din.

Norbanakoak izaki sozialak ere baga-
ra, eta urte luzea igaro ondoren, balan-
tzea egiteko parada izaten da; gizarte
bateko bizitzaren partaide garen neu-
rrian daramagun motxila hori aztertu,
garbitu eta txukuntzeko aukera alegia.
Horretarako zein hobe urtean maila
honetan izan ditugun gertakari nagu-
sienak aztertzea baino. Nik, neuk, eta
Aiurrik aukera ematen didanez, hona-
ko hauek gogoratu eta aztertuko nituz-
ke.

KATALUNIA

Zabal eta luze hitz egin dugu 2014an.
Tirabira askoren gibelean egin zen kon-
sulta. Azkenean justiziak ere muturra
sartu zuen eta, badirudi, Mas presiden-
tea epaitegira eraman nahi dutela. Asko-
tan esan dut: Nire irudiko Erabakitze-
ko Eskubidea, erabat errebindikazio
demokratikoa, Independentziarekin
nahasi dutela; eta nahasketa horrek zail-
du egin duela subiranotasunaren alde
zeuden edo dauden asko eta askok
lehengo galderari bai baina bigarrenari
ez eman ziotela. Nire ustean, hasie-
ratik jarri behar ziren gauzak garbi. Eta
ondo bereiztu Erabakitze-ko Eskubidea
eta Independentzia. Baina horrela iga-
ro zen eta gaur inoiz baino ilunago ikus-
ten dut arazoa. Hor dabilta CIU eta
ERC adostasun batera iritsi gabe eta
bitartean, eskuinak jaso nahi ditu desa-
dostasun horiek.

Nire itxaropena da herriak, popula-
zioak mugimendu horren gidaritzat har-
tuko duela eta ea 2015ean gauzak
zuzenduko direla.

PODEMOS

Europar hauteskundeetan indar berri
honek hainbeste urtetako bipartidismoa

hautsi zuen eta ordutik indartuz joan
da, eta inkesta guztien arabera indar-
tsu datoz. Nire irudiko, politika mailan
2014ko gertakari garrantzitsua izan da.
Hainbeste ustelkeriaren ondoren herriak
arnas berri bat bailitzan jaso du. Eta gu
bezala, orain Grezian hil honen 25ean
zer gertatu zain daude han ere ez bai-
taude gauzak ondo. Lotsagarriena da
han eta hemen boterean dauden indar-
rak, hala nola, Alemaniako anderea zer
nolako xantaiak erabiltzen ari diren gre-
ziarrak beldurtzeko.

Presioak ez datoz goi mailako poli-
tikoengandik soilik, Podemosekoak
sasoi honetan gogor erasotzen dituz-
te kazetariak eta beste. Oraindik, eta
nik dakidala, eratze prozesuan daude.
Otsailerako espero da erkidego mai-
lan idazkaria eta zuzendaritza aukera-
tzea. Hor eztabaidatuko dituzte herri honi
dagozkion gai nagusiak. Bitartean erres-
peta ditzagun!

Aiurritarroi Podemos Ahai Duguko
ordezkari batekin eginiko elkarriketa
agintzen dizuet. Bitartean ongi etorriak
izan daitezela; ea politika denen arte-
an eraberritzen den!

PRESOAK

Presoen, bakearen eta bizikidetzaren
inguruan ere asko hitz egin da 2014an.
Eusko Jaurilaritzak ere jarri du martxan
presoak birgizarteratzeko egitasmo
berria. Bilbon, urtero bezala, aurten ere
izan da manifestazio erraldoia. Baina
bere horretan ikusten dut egoera. Hor
zerbait falta da eta, presoen giza esku-
bideen alde nago. Nola ez! Guk ere zazi-
pi urteko kartzela pairatu baikenuen eta
badakigu zer den hori, neurri batean.

Ea abiatu dugun urte berriak zerbait
berria ekartzen digun sufrikario hori ere
gainditzeko.

PARIS ERABAT ASTINDUTA

Ezin bukatu gaurko zutabe hau Paris-
koa aipatu gabe. Agian beste batean
luzatuko naiz baina hauxe esan nahi
nuke hausnarketa gisa: bizitza defen-
datzen dut eta hilketa horien kontra
nago. Nola ez! Baina hau esanik, eta
manifestazio eta aldarrikapenak buka-
tu ondoren, pentsa dezagun ea aska-
tasun adierazpenak ez ote duen muga-
ren bat. Edo, ez al ditugu gorde behar
gorrotoa sortzen duten adierazpenak.
Zer hausnartu badago, eta patsadaz.
Gauzak argi eta garbi utziz.

Gaurkoz, dolumina hor hil diren lan-
gile guztiei, eta horren ondoren, haus-
narketarako mezua Mendebaldeko eta
Ekialdeko guztiei.

IN Memoriam Paris!!!!

HITZ-GEZIDUNAK


		Pl., jakintza mota	▼	Infusio mota	▼	Tik-..., erlo- juaren hotsa	▼
		Altzoa		* IRUDIKO LOREA		Aintzira	
▶				▼		▼	
		Setak	▶				
		Pl., gurdi mota					
▶							Jardun
Erraz hartzen dute su	▼	Peruko hiriburua	▼	Munstroa	▶		▼
Portugaldar		Sufrea		Musika tresna			
▶		▼		▼			
Potasioa	▶	Mutiko	▶				Bokala
Eskribauak		Interjekzioa					Militarren kolorea
▶		▼				▼	Gipuzkoako herria
2	▶	Ezeza	▶			A birritan	▶
Horma		Gelaren erdian				Erbioa	▼
▶		▼				▼	
					Eguzki	▶	
					Bokala	▼	
Berritsua, hitzontzia	▶				▼		

6 EZBERDINTASUNAK



ERANTZUNAK

A	V	I	R	A	K	A	V	L	V	K
I	E	K	I	A	T	A	R	E	T	P
A	K	A	V	K	A	I	R	I	L	A
K	A	O	I	R	I	O	A	T	O	N
I	L	I	T	I	U	M	I	K		
R	A	V	I	N	A	T	I	S	L	U
A	M	A	M	A	M	A	L	S		
K	A	K	L	E	R	A				
K	A	K	E	M	A	T				
A	L	V	A	G	A	M	A			
T	K		M							



Areto futbol txapelketa

12. JARDUNALDIA

Aure Maiton 6-3 Pausoka
Academia 8-1 Ondarreta
Txalaka 5-3 OZU
C.Extremeño 7-1 Leiza 77
Ekaitz 1-7 Keler
Ekhia 2-1 Hogar Andoain

SAILKAPENA

1. Keler	33
2. Aure Maiton	28
3. Centro Extremeño	27
4. Ekhia	22

ASTEBURU HONETAN

Hogar Extremeño-Galpasitx
Lar, 17. 14:30. Allurralde.
Keler-Ekhia
Igandea, 18. 09:15. Allurralde.
Leiza 77-Ekaitz
Igandea, 18. 09:00. Arrate.
OZU-Centro Extremeño
Igandea, 18. 10:00. Arrate.
Ondarreta-Txalaka
Igandea, 18. 11:00. Arrate.
Pausoka-Academia G.F
Igandea, 18. 12:00. Arrate.

GOLEATZAILEAK

Azpiroz, Urtzi	Keler	41
Esteban, Gorka	Centro Ext.	29
Ettxeberria, Aitzol	Ekhia	17
P.Arenaza, Asier	Centro Ext.	17
Serres, Gonzalo	Centro Ext.	17
Irigoyen, Jagoba	OZU	16
Gonzalez, Javier	Aure	15
Bayon, Iñaki	Galpasitx	12
Gonzalez, Ares	Keler	12
Recondo, Daniel	OZU	12
Baltasar, Eneko	Keler	11
Hurtado, J.Luis	Leiza 77	11



KIROL ALBISTEAK

Euskal Herriko txapela Urnietan jokatu da

Urnietako mendi lasterketa urtez urte haziz doa, eta geroztik eta garrantzia handiagoa hartzen ari da. Izan ere, aurtengo lasterketa era berean Euskal Herriko txapelketa izango da. Gauzak horrela, irabazleak proba bakarrean bi txapel jantziko ditu. Lehena, probarena. Eta bigarrena, Euskal Herriko txapeldunarena.

Ostiral honetan irekiko dute izena emateko kirolprobak. -com webgunean.



Igeriketa txapelketa Allurralden, larunbatean

Badira gutxienez bost urte Andoainen igeriketa txapelketarik izaten ez zela. Haur eta gazteak igeriketara hurbildu ahala, lehiaketa Andoainen egitea posible izan da. Buruntzaldea IKT taldekoak "ilusioz beterik" daude larunbat honetako hitzorduarekin: "Zalantzarik gabe egun berezia izango da gure haurrentzat, lehen aldiz txapelketa bat euren herrian izango dutelako". Txapelketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Ligako jardunaldi hontan Tolosaldea, Igartza, Usurbil, Hernani, Ordizia eta Buruntzaldea



IKTko haurrak ikusteko aukera izango da.

Andoaingoa benjamin eta

alebinen ligako 2. jardunaldia izango da. Zorte on antolatzaile eta igerilariei!

Emaitza onak trinketean, maila ezberdinetan



Iker Elgarresta.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Urnietako 40-44 Mundarro

Julen Loitegi. Finalerako sailkatu da garaipen horri esker.

Urnietako 25-30 Oiarpe

Imanol Odriozola. Partida galdu arren final aurrekora sailkatu da.

Urnietako 30-41 Hernani

Aitor Aldunberri. Partida ona, lastima debutan izan zuen lesio hori.

Urnietako 30-21 Hernani

Iker Elgarresta. Agur esan dio txapelketari, zapo onarekin. Pixkanaka egokitzen ari da.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Urnietako 22-8 Zazpi Iturri

Jon Alberdi-Imanol Odriozola. Amezketarrak garaitu zituzten. Hurrengo sei partidatan Euskal Herriko bikote onenen aurka lehiatuko dira.

Trinketean maisu dira UKEkoak.

Odriozola laugarren estatuko ziklo kros txapelketan

Gijonen aurreko asteburuan Estatu mailako ziklo kros txapelketa jokatu zen. Junior mailan Andoaingo Jokin Alberdi nagusitu zen. Senior mailan eskualdeko ordezkari ondo ibili zen. Emakumezkoetan laugarren sailkatu zen Olatz Odriozola, eta gizonezkoetan Asier Arregi hamargarren.



Euskalduna eta Zanpatuz, mendi irteerak

EUSKALDUNA MT ANDOAIN

Urtarrilak 25, igandea.

Nabarniz- Iluntzar (731)- Oleta zeharkaldia.

Informazio gehiago:

www.euskaldunamt.com

ZANPATUZ URNIETA

Urtarrilak 25, igandea.


Urnietako-Leitza zeharkaldia.

Izena emateko epea, urtarrilak 20: Xauxar, Kantoio,

Amailur eta Ikasmin.

Del Sol eta Barberena beteranoen mailako lehiaketa

Urtarrilaren 4an Donostiako Belodromoan Euskadiko Beteranoen pista txapelketa jokatu zen. Bertan Txelu Del Sol eta Xabier Barberena urnietarrek 3.000 metroko lasterketan parte hartu zuten. Del Sol laugarren sailkatu zen, eta Barberena bigarren, zilarrezko domina lortuz.



Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Luberri 68-70 Ganbara Sen.

Erroibide 52-56 Ganbara Kad.

LEK 74-24 Ganbara Inf.

Asteburuan Allurralden:

Ganbara Kad.-Aldapeta

Larunbata, 29. 12:15.

Ganbara Sen.-Askatuak

Larunbata, 29. 19:15.

Preferente mailako futbola

15. jardunaldia:

Urnietako 1-1 Orioko

Euskalduna 3-1 Pasaia

Euskalduna-Astigarraga

Igandea, 18. 17:00. Ubitarte.

Asteburuko partidak:

Urnietako-Baskonia

Larunbata, 17. 16:30.

Sailkapena:

1. Orioko 35

2. Euskalduna 33

4. Urnietako 29

Eskubaloia, senior maila

1. Maila. 11. jardunaldia:

Urnietako 30-24 Egia

Leizaran 23-24 Urola

Asteburuko partidak:

Urnietako-Tolosa

Leizaran-Elgoibar

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URTARRILAREN 15ETIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “Magia, a la luz de la luna”
19:30, 22:00. Urtarrilak 17.
19:30. Urtarrilak 18.
19:30, 22:00. Urtarrilak 19.
- Hurrengo asteburuan: “Invencible”.
- Haurrentzat: “Antboy”.

Andoain, Bastero

- Laster: “Amor de mi vida”
Zarzuela emanaldia.
Otsailak 6, ostirala. 20:15.
Sarrerak dagoeneko salgai.

Urnietan, Sarobe

- “Las aventuras del pequeño fantasma”
16:00, 18:30. 4 euro.
Urtarrilak 25, igandea.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- Juana, la reina que no quiso reinar, Histrion konpainiaren eskutik.
21:30. 15 euro.
Urtarrilak 16, ostirala.

Musika

Andoain, Bastero

- Gospel kontzertua, The Sey Sisters. Hiru ahots beltz, Albert Bartolome piano-jotzaile eta saxofoi-jotzailea-ekin batera.
20:00. 12 euro.
Urtarrilak 24, larunbata.

Aurkezpena

Urnietan

- Udal hauteskundeei begira, herritar talde batek Urnietan “URzabal Urnietarron plataforma” aurkeztuko du jendaurrean. Ekitaldia irekia izango da.
19:00. Lekaio.
Urtarrilak 15, osteguna.

Ikuskizunak

Urnietan, Sarobe

- “Zuria, gure erara”
Egape dantza taldeko kideen ikuskizuna, Anabasa musika taldearen eta Jon Unanue aktorearen parte hartzearekin.
19:00. 4 euro
Urtarrilak 17 eta 18.

Andoain, Bastero

- “Barbantxo”, haurrentzat.
17:00. 4 euro.
Urtarrilak 18, igandea.

Ikastaroak

Urnietan

- Tai Ji & Qi Gong, Gazte Asanbladaren eskutik.
Ludoteka zaharra, Errekalde 1. 10:00-11:30.
Urtarrilak 17, 24, 31.
- Udal ikastaroak: argazkilaritza, masajeak, makilaia, sendabelarrak...
Izen ematea urtarrilaren 23ra bitarte. Lekaio.

Mendeurrena

Andoain

■ **Hitzaldia:**

Historian doktorea den Jose Antonio Rodriguez Ranz andoaindarrak hitzaldia eskainiko du egungo Andoain ulertzeko gakoenguruz: “Andoain garaikidea. Hamar hitz, hamar zenbaki”.
19:00. Bastero. Doan.
Urtarrilak 21, asteazkena.

■ **Ekitaldi instituzionala:**

1615. urtean burujabetza lortu zuten herrietako agintarietara zenbait konpromiso hartu zituzten beregain. 400 urte beranduago, konpromiso horien berrespena egingo dute ez ohiko ekitaldian Batzar Nagusietako, Foru Aldundiko eta 29 herrietako agintarietara.
11:00. Udaletxea. Doan.
Otsailak 1, igandea.

■ **Herri Antzerkia:**

Katramila, Udal musika eskola, Maizorri txalapartari taldea, Olagain, Ikastolako trikitilariak, Poto bertso eskola, Urki eta hainbat herrietarren ahots eta irudia.
12:00. Bastero. 5 euro.
Otsailak 1, igandea.

■ **Erakusketa:**

Andoaingo historiari errepasoa lau aro ezberdinetan. Panelak, maketak eta garai bateko tresneria ikusgai.
Bastero, erakusketa gela.
Otsailaren 15era bitarte.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Beñatek urtarrilaren 18an 9 urte beteko ditu. Zorionak etxeko partez eta jarraitu horrela bizi-bizi.

ANDOAIN


ZORIONAK



Sarak eta Ane 4 urte bete zituzten urtarrilaren 14an. Zorionak bikoite eta muxu erraldoiak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ikerrek urtarrilaren 16an 14 urte. “Handitzen, handitzen...” Zorionak eta ondo pasa. Etxekok.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN

• diseinua@aiurri.com

• Aiurriko bulegoan

• **Aukera berria Whatsapp bidez:**
619
163
537.

Bertso desafioa Lasarten

“Lasarte Oria vs. Andoain” bertso desafioa, ostiral honetan Jalgin gaueko 22:30etan hasita. Andoain-

darren ordezkari Eskudero anaiak eta Ion Beloki izango dira.

Urtarrilak 16, ostirala. 22:30.

Literatur solasaldia

Andoaingo Udal liburutegiak literatura solasaldiak antolatzen jarraitzen du, urte berrian. Urtarrilaren 27an Janne Teller idazlearen “Na-

da” liburua aztergai izango dute. Izena emateko Udal liburutegian bertan.

943 300 615

liburutegia@andoain.org

Elikagaiak Tindouf aldera

Hurria Sahara elkarrekin Udalarekin batera “elikatu itxaropena” kanpaina martxan jarri du, aurtien ere. Elikagaiak bil-tzen ari dira, ikastetxeetan ur-tarrilaren 18ra arte eta mer-katalguneetan urtarrilaren

23ra arte. Elikagaiak karabanan eramango dituen kamioia urtarrilaren 26an pasako da Andoaindik. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea... kanpainarekin bat egiteko azken egunak dira hauek.

Caritas taldearen eskertza

Urnietako Caritas taldeak Aiurri astekariaren bitartez esker ona adierazi nahi dio Egape ikastolako ikasle talde bati, Eguberrietan kanta-

ri ateratako dirua elkarrearen esku utzi zuelako. Nola ez, behar bereziak dituzten alde erabiliko dute ditu hori.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua. Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria

eus

gure domeinua